“El objetivo de la mayoría de editoriales consiste en introducir contenidos. En Ostadar, los contenidos se aprenden utilizándolos. Está bien saber qué es una metáfora, pero es más importante saber usarla”. • “Ostadar permet à l'élève d'assimiler les notions au fur et à mesure qu'il les travaille. Savoir ce qu'est une métaphore ne suffit pas, le plus important est de savoir l'utiliser. En vingt ans la façon de travailler à complètement changée”.

“Informazioa bilatu, hautatu, laburtu eta agertzen ikasten dute. Eta helburuak oso garbi daude Ostadarren. Jendaurrean hitz egiten, Udaletxean eskabide orri bat idazten edo poema bat idazten ikasten dute; finean, etorkizunean erabiliko dituzten baliabideak bereganatzen dituzte”.

(IXIAR ZABALA)

“Ahorá el alumnado aprende a buscar la información, a seleccionarla y a mostrarla. Aprende a hablar en público, a rellenar una instancia en el Ayuntamiento o a escribir un poema. Adquiere recursos que utilizará en el futuro”. • “L'élève apprend à chercher, choisir et restituer l'information. Avec Ostadar les objectifs à atteindre sont clairs. L'élève acquiert des savoirs qui lui seront utiles dans la vie : rédiger une lettre à une administration, écrire un poème...”.





ARANTZAZU GURUZEAGA
San Fermin Ikastola. Zizur Txiki.
Bigarren Hezkuntzako zuzendari
pedagogikoa.

PILAR VICENTE
San Fermin Ikastola. Zizur Txiki.
Zuzendari kudeatzailea.



“Bi helburu horien atzetik daude elkarbizitza, partaidetza, autonomia eta beste hainbat arlo Bigarren Hezkuntza guztian lantzen ditugunak”.

(ARANTZAZU GURUZEAGA)

“Detrás de ambos objetivos están la convivencia, la participación, la autonomía y otras áreas que trabajamos en toda la Educación Secundaria”. • “Derrière ces deux objectifs, nous travaillons la vie en communauté, la collaboration, l'autonomie dans le travail...”.

“Ikasle bakoitzaren autonomia zaintzen dugu: arazoei aurre egiten saiatzen dira, auto-estimua lantzen dute eta kezkak partekatzen ikasten dute”.

“Cuidamos la autonomía de cada alumno: Intentan hacer frente a los problemas, trabajan la autoestima y comparten las preocupaciones”. • “Nous veillons à ce que chaque élève soit autonome: Ils essaient de résoudre leurs problèmes, travaillent l'auto-estime et apprennent à partager leurs inquiétudes”.

“Batxilergoan guk bi helbururekin egiten dugu lan: alde batetik ikaslearen ikaste prozesua planifikatu eta erregulatzeko ahalmena garatzen saiatzen gara eta, bestetik, orientazioaren arloa lantzen dugu, ikasleari bere bizitzako aukerak egiten laguntzen diogu”.

(ARANTZAZU GURUZEAGA)

“En el Bachillerato trabajamos con dos objetivos: por una parte intentamos desarrollar la capacidad del alumno para planificar y regular su propio proceso de aprendizaje, y, por otra, trabajamos el ámbito de la orientación, ayudándole a tomar decisiones”. • “Nous avons deux objectifs: planifier le processus d'apprentissage des élèves d'une part, les aider à s'orienter et effectuer des choix d'autre part”.

BATXILERGOA 16-18



BATXILERGOA

“Atzerriko ikasleekiko harremanak bultzatzen ditugu: beste herrialdetako ikasleekin bakarrik ez, Europako ikasleekin loturak lantzen dituzte ere harremanak jorratzen dituzte gure ikasleek, gero eta gehiago baitira atzerriko ikastetxeekin trukeak egiten ari diren ikastolak”. (PILAR VICENTE)

“Impulsamos las relaciones con estudiantes extranjeros: Nuestro alumnado no sólo se relaciona con chavales de otros territorios, sino también con estudiantes de Europa. Cada vez son más las ikastolas que llevan a cabo intercambios con centros del extranjero”. • “Nous encourageons les relations avec les élèves étrangers: Nos élèves ont des relations avec des élèves d'autres établissements en Espagne mais aussi partout en Europe. Les ikastola qui ont un projet d'échange sont de plus en plus nombreuses”.

“Oso ezberdina da ikasleak nola hezten ditugun ikastola batean. Gurasoek jarraipen integrala nahi izaten dute, eta badakite hemen gaztearen garapen prozesuan aterako diren arazo guztien gainean talde profesional bat egongo dela. Hori egiten dugu ikastoletan. Ez diogu ikasketa prozesuari bakarrik begiratzen, garapen integralari baizik. Hemen ikaslearen edozein arazo txikiari jartzen diogu arreta. Eta hori nerabezaroan garrantzitsua da. Kontuan izan ikastoletan 3 urtetik 18ra bitartean ezagutzen ditugula ikasleak. Ikastoletan egiten den jarraipena izugarria da”. (PILAR VICENTE)

“Es muy diferente cómo educamos al alumnado en una ikastola. Los padres y madres suelen querer un seguimiento integral y saben que, en la ikastola, habrá un equipo profesional observando todos los problemas que surjan en el proceso de desarrollo del joven. No sólo prestamos atención al proceso de aprendizaje, sino a su desarrollo integral. Atendemos cualquier pequeño problema del alumno. Y eso es importante en la adolescencia. Le conocemos desde los 3 años y el seguimiento es total”. • “Les parents souhaitent un suivi continu de l'enfant et savent qu'à l'ikastola les professionnels sont présents à chaque étape du processus d'apprentissage. Mais nous ne nous cantonnons pas uniquement au domaine scolaire, nous tenons compte du développement de l'élève dans son intégralité. Nous nous penchons sur le moindre problème qu'il peut rencontrer. C'est très important notamment pendant l'adolescence. A l'ikastola nous suivons l'élève de 3 à 18 ans”.


“Berdinen arteko bitartekaritza lantzen dugu: ikas bidaiak ikasleek berek antolatzen dituzte; ikastolari agurra egiteko ekitaldia berek diseinatzen dute eta txikienekin, haurtzaindegikoekin, harreman zuzena izaten dute ikasturtean zehar”. (PILAR VICENTE)

“Trabajamos la intermediación entre iguales: El propio alumnado organiza los viajes de estudios; son ellos quienes diseñan el acto de despedida a la ikastola y, durante el curso, tienen relación directa con los pequeños de la guardería”. • “Nous travaillons la médiation entre élèves: Les élèves préparent eux-mêmes leurs voyages scolaires, ils mettent en place leur spectacle de fin d'année et, pendant l'année scolaire, ils entretiennent des relations directes avec les plus petits”.

“Giza alderdiarekin batean alderdi akademikoa oldartzen dugu: eta horren froga dira ikastolako ikasleek urtea joan eta urtea etorri selektibitatean eskuratzen dituzten emaitza onak”. (PILAR VICENTE)

“Junto al ámbito social, incidimos también en el académico. Prueba de ello es el hecho de que, a lo largo de todos estos años, los jóvenes de las ikastolas obtengan buenos resultados en la Selectividad”. • “Nous menons conjointement développement humain et parcours scolaire: Les bons résultats obtenus chaque année par les élèves lors des examens de la «sélectivité» sont les fruits de ce travail”.

16-18





LANBIDE HEZIKETA, IKASTOLA
EREDUAN

LANBIDE HEZIKETATIK LAN MUNDURA BIDE OSO ZABALA

Ez daukate eragin progresista Europako eremu garatuenetatik datozkigun joera nagusiek; Lanbide Heziketaren alorrean, ordea, guretzat eredu garriak liratekeen, eta indarrean jarri beharko genituzkeen ildoak aurkitzen ditugu lehen bistadizoan. Unibertsitateak eta Lanbide Heziketak elkar osatuz betetzen dute beren funtzioa, orain arte hemen ez bezala. "Goi mailako ikasketak = Unibertsitatea", "Goi mailara iritsi ezin dutenak = Lanbide Heziketara" da hemen indarrean dagoen ekuazio soziala. Heziketa arloan garatua den Europan, ekuazio hori guztiz arrotza da. Lanbide Heziketatik Unibertsiterako eta alderantzizko pasabideak ugariak eta irekiak dira, askotan bata eta bestea non hasten eta non bukatzen diren zehaztea ere zaila egiten delarik, arlo teknikoetan, osasunekoan, ingurumenekoan ...

Lanbide Heziketaren inguruan gure artean daukagun minbizi sozialetako batek, bestalde, emakumea eta gizonezkoa bereizten ditu oraindik. Mekanikako edo mantenuko gure ikasgeletan ez da apenas emakumerik ikusten. Elektronikan edo automatismoetan akaso hasi berriak dira baten batzuk azaltzen. Baina, ez. Gizarteak, familiak, lagunarteak, eskolak, instituzio bezala hartuta, oraindik ez ditu emakumeak ikasgela horietara bultzatzen.

Eta testuinguru horretan gatzoguz, ikastolak, gure historia guztian lehen aldiz, Lanbide Heziketaren erronkari ere aurre egin nahian. Ikastolak sortu zirenean lehen aldiz hautsi zen ordura arte hemen indarrean zegoen heziketa eredu (haurrak lerroetan jarritako pupitreetan, neskak eskola batean eta mutilak beste...). Hori guztia, ikastolaren muina, alegia, euskara eta euskal kulturaren ausentzia osoa orduko eskoletan, eta ia osoa gaurko Lanbide Heziketan ez aipatzeagatik. Orduan ikastolak asmatu zuen bezala gaur XXI. mendeko euskal gizartearen ezaugarri aurrerazaleen neurria jarritako eredu propioa lantzea dagokigu. Eta horretan ari gara, osasungintzako ikasgeletan zein elektrizitatekoan, mekanika eta automatismoetan zein eraikuntzan edo haur-hezkuntzagintzan, diseinuan edo soinetan zein informatikan... zeren eta horiek guztiak eta beste hainbat ematen dira jada abian dauden Lanbide Heziketako sei ikastoletan.

◀ **JOXE MARI ERKIZIA**

*Partaide-Ikastolen Elkarte.
Lanbide Heziketako koordinatzailea.*

CAMBIO DE TENDENCIAS:

Las principales tendencias que llegan desde las zonas más desarrolladas de Europa no suponen influencias progresistas. Por contra, en el ámbito de la Formación Profesional son modélicas. La Universidad y la FP se complementan, a diferencia de lo que aquí sucede. La ecuación social aquí en vigor es "estudios superiores = Universidad", "Quien no puede llegar al nivel superior = Formación Profesional". En la Europa de la educación desarrollada, las conexiones entre ambos niveles son numerosas y están abiertas. Uno de los cánceres sociales que tenemos en relación a la Formación Profesional es la distinción que se hace entre hombres y mujeres. La sociedad, la familia, el grupo de amistades, la escuela como institución todavía no las anima a esos estudios. Y en ese contexto llegan las ikastolas, por vez primera en toda su historia, queriendo hacer frente también al reto de la Formación Profesional. Cuando surgió el movimiento de ikastolas, se rompió el modelo educativo que existía. Entonces acordamos y también ahora debemos trabajar un modelo propio en las aulas de salud, electricidad, mecánica, automatismo, diseño... Seis ikastolas ofrecen ya FP.

CHANGEMENT DE TENDANCES:

Au Pays Basque la formation professionnelle est souvent perçue comme une voie pour les élèves en difficulté scolaire. A l'inverse, au niveau européen, les passerelles entre Formation Professionnelle et Université sont facilitées et encouragées dans les domaines techniques, de la santé, de l'environnement... Nous devons suivre ce modèle de complémentarité. Autre mal social: la distinction des sexes. Il est en effet rare de voir dans nos écoles des femmes en mécanique par exemple, même si on commence à en voir en électronique ou automatisme. Ces formations ne sont pas encore rentrées dans les mœurs de la société. Nous devons aujourd'hui développer un modèle propre, adapté à la société basque du XXI^{ème} siècle. Pour lors, six ikastola offrent des formations en mécanique, électricité, bâtiment, informatique...



JOSE MANUEL ODRIUZOLA,
ANA MONGE eta
JOSU MARTINEZ
Tolosako Inmakulada Ikastolako zuzendaritza.



Ikastolok, 2004tik HAUTU ESTRATEGIKOA egin dugu Lanbide Heziketaren erronkari erantzutea. Lanbide Heziketa berriak, gizarteak eta ekonomiak dituen erronka berrien aurrean tresna eraginkorra izan behar du. (JOXE MARI ERKIZIA)

“Desde 2004, las ikastolas hemos hecho una elección estratégica. La nueva Formación Profesional debe ser una herramienta eficaz ante los nuevos retos de la sociedad y la economía”. • “En 2004 nous avons fait un choix stratégique en relevant le pari de la formation professionnelle. Notre modèle doit être l’outil qui permettra de répondre aux futurs besoins de la société et de l’économie”.

Egun sei tokitan kokatuta daukagu Lanbide Heziketaren eskaintza: Arrasate (Arizmendi), Donostia (Barandiaran), Durango (Ibaizabal), Portugalete (Ibar Ezkerra), Tolosa (Inmakulada) eta Zarautzen (Oteitza). (JOXE MARI ERKIZIA)

“Hoy tenemos FP en Arrasate (Arizmendi), Donostia (Barandiaran), Durango (Ibaizabal), Portugalete (Ibar Ezkerra), Tolosa (Inmakulada) y Zarautz (Oteitza)”. • “Les six sites offrant un enseignement professionnel: Arrasate (Arizmendi), Donostia (Barandiaran), Durango (Ibaizabal), Portugalete (Ibar Ezkerra), Tolosa (Inmakulada) et Zarautz (Oteitza)”.

Arte grafikoa, elektrizitate-elektronika, elikagai industria, eraikuntza eta obra zibilak, fabrikazio mekanikoa, gizarte eta kultur zerbitzuak, gorputz eta kirol ekintzak, informatika, kimika, osasungintza eta produkzio-zerbitzua eta mantenimendu arloetako eskaintza dugu. (JOXE MARI ERKIZIA)

“Abarcamos las artes gráficas, electricidad-elektrónica, industria de los alimentos, construcción y obra civil, fabricación mecánica, servicios sociales y culturales, actividades físicas y deportivas, informática, química, salud y servicio de producción y mantenimiento”. • “Nous dispensons des formations en art graphique, électricité-électronique, industrie alimentaire, bâtiment et génie civil, fabrication mécanique, services sociaux et culturels, éducation physique et sportive, informatique, chimie, santé et services de production et manutention”.



LANBIDE HEZIKETA




LANBIDE HEZIKETA




Europako ikuspegiari jarraituz, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitatearen ibilbideak eskutik joango dira, biak prestakuntza osagarriak izango dira. (ANA MONGE)
 “La Formación Profesional y la Universidad irán de la mano, siendo ambas formaciones complementarias”. • “Nous devons suivre le modèle européen et développer la complémentarité des formations dispensées à l’université et au sein des établissements professionnels”.



Eskaintzaren inguruan adierazi, ikastoletan egun hamaika arlotan eskaintza eta hogeii agiri baino gehiago lortzeko aukera badugula; beraz ikastola ereduari eskura dugu lanbide heziketa garatzeko aukera gero eta handiagoa.
 (JOXE MARI ERKIZIA)
 “Ofrecemos más de veinte títulos de Formación Profesional”. • “Les ikastola offrent actuellement de nombreuses formations dans des domaines très variés. Nous devons continuer à élargir l’éventail de cette offre”.




MONDRAGON UNIBERTSITATEA




entitate laguntzailea


CAJA LABORAL ELISKADIKO KUTXA





MONDRAGON UNIBERTSITATEA 10 URTE
zurekin, geroa lantzen


WWW.MONDRAGON.EDU
































ZERBITZUAK

EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA (EHIK) ikastolaren eredu komuna gauzatzeko beharrezko diren baliabideen haztegia da. Baliabideok landu ondoren, ikastoletan erin eta bertan loratzen dira, ematen dute fruitu.

La Confederación de Ikastolas de Euskal Herria (EHIK) es un vivero de recursos necesarios para llevar a cabo el modelo común de las ikastolas. Esos recursos que se trabajan en la Confederación se cultivan después en las ikastolas, donde florecen y dan frutos. • La Confédération des Ikastola du Pays Basque (EHIK) est à la base des ressources nécessaires à la mise en place du modèle ikastola. Après un travail de réflexion et d'élaboration de ces ressources, elles sont étendues aux ikastola.

● GUZTION ESKURA

I+G
(IKERKETA ETA GARAPENA)
EUSKAL CURRÍCULUMA
IKASTOLA EREDUA
ESKOLARAKO HARDWARE IKERKETA

PRESTAKUNTZA
ZUZENDARI ETA IRAKASLEAK (MINTEGIAK)
GURASOAK
JARDUNALDI PEDAGOGIKOAK
IKASLEAK

IKASMATERIALGINTZA
TESTUGINTZA
JOKOGINTZA
SOFTWAREGINTZA

AHOLKULARITZA
HEZKUNTZA GAIEtan
FINANTZIAZIO GAIEtan
ERAKETA GAIEtan

EBALUAZIOA
IKASLEEN EBALUAZIO KURRIKULARRA
EGITASMOEN EBALUAZIOA
IKASTETXEEN EBALUAZIOA

ERAKETA-KOMUNIKAZIOA
IKASTOLA ALDIZKARIA
GIZARTEGINTZA
IKASTOLEN EGITURAKETA

AISIALDIA
UDALEKUAK
NEGUKO EGONALDIAK
AISIALDIA (BEGIRALEENTZAKO ETA ZUZENDARIENTZAKO ESKOLA)

HIZKUNTZA ETA EUSKAL SENA
ELEANIZTASUNA
EUSKARAZ BIZI
BERTSOLARITZA
XIBA

IKT
(INFORMAZIO ETA
KOMUNIKAZIO
TEKNOLOGIAK)
HEZKUNTZA
IKASDAT
IKASWEB

FINANTZIAZIOA
ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREKIKO
HARREMANAK
ELKARTASUN KUTXA
ENTITATE FINANTZIERO EKIKO
HARREMANAK

MERKATARITZA
IKASMATERIALAREN BANAKETA
EROSKETA-GUNE NAGUSIA
ASEGURUAK

EUSKAL CURRÍCULUMA

Ikastolaren ardatzak euskara eta euskal kultura izanik, Euskal Herrian eta munduan bizitzeko kalitatezko hezkuntza proiektua eskaintzea da Euskal Curriculumaren helburua.

CURRÍCULO VASCO: Siendo el euskara y la cultura vasca las bases de la ikastola, el objetivo del Currículo Vasco pasa por ofrecer un proyecto educativo de calidad para vivir en Euskal Herria y en el mundo. • **CURRÍCULUM BASQUE:** Le modèle des ikastola étant basé sur la langue et la culture basques, l'objectif du Curriculum Basque est de dessiner un projet éducatif de qualité qui permettra à l'élève de vivre en tant que citoyen basque et citoyen du monde.

XABIER GARAGORRI
Aholkulari pedagogikoa

“Ezaugarri hauek azpimarratuko genituzke: pertsonaren garapen osoa eta orekatua gizabanako, gizartekide eta izadikide gisa lortze aldera bideratuz. Bizitza osorako ondo prestatua irteteko, ikasten eta pentsatzen, komunikatzen, elkarrekin bizitzen, norbera izaten eta egiten eta ekiten irakatsiz eta ikasiz. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioa bermatuz eta era berean Europan integratutako gizarte batean eta munduarekin elkar eraginean bizitzeko beharrezkoak diren konpetentziak garatuz. Kalitatezko hezkuntza proiektu hori lortzeko, irakasleak, gurasoak eta ikasleak elkar lankidetzan arituz.”



HIZKUNTZA ETA EUSKAL SENA

Proiektu honek ikastolan sortzen diren hizkuntzen irakaskuntza eta erabilerari dagozkion alderdi guztiak lantzen ditu, euskara eta euskalduntasuna ardatz harturik. **IDIOMA E IDENTIDAD VASCA:** Este proyecto trabaja todas las áreas que surgen en la ikastola en relación con la enseñanza y el uso de los idiomas, sobre la base del euskara y el carácter euskaldun. • **LANGUE ET IDENTITE BASQUE:** Ce projet tient compte de tous les aspects relatifs à l'enseignement et à l'utilisation des langues présentes au sein de l'ikastola et se base sur la langue et l'identité basque.

ITZIAR ELORZA
Hizkuntz egitasmoen arduraduna

“Bizitzan zehar arrakastaz moldatzeko hizkuntzak jakitea ezinbestekoa da. Izan ere, hizkuntza da giza garapenerako helduleku nagusia, askotariko jardueretarako ezinbesteko bitartekoa. Horiek horrela, euskara eta euskal kultura ardatz harturik euskaldun eleaniztunak heztea da ikastoletako hizkuntza proposamenaren helburua: • Euskara jakiteaz gain, euskaraz nonahi aritzeko gauza diren pertsonak, euskararen hedapenarekin eta normalizazioarekin konprometitutako erkideak, euskaldunak. • Gaztelaniaz edo/eta frantsesez jakiteaz gain, mundua geroz eta txikiago bilakatzen ari zaigun honetan, ingelesez ere moldatzeko gauza diren pertsonak. • Ikastolan lantzen diren hizkuntza guztien arteko harremana eta elkarrreragina landuz, herritar eleaniztunak.”

IKT (INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK)

Ikastolek behar duten hardware, software, profesionalen prestakuntza eta dinamizazioa antolatzen ditu IKT planak, bai hezkuntza prozesuan eta bai eskolaren kudeaketan, modu koherente eta aproposenean.

TIC (TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN Y LA COMUNICACIÓN): El Plan TIC se ocupa del hardware, software, formación y dinamización de profesionales que las ikastolas necesitan, tanto en el proceso educativo como en la gestión de la escuela, de la forma más coherente y apropiada posible. • TIC (TECNOLOGIES D'INFORMATION ET DE COMMUNICATION): Le plan TIC gère de façon cohérente et adaptée la formation des professionnels aux logiciels et applications informatiques dont ont besoin les ikastola et propose des logiciels liés à la gestion du centre scolaire ou liés à l'enseignement.



IOSUNE GEREKA IKT arduraduna

“Informazioa bilatu, prozesatu eta komunikatzeko konpetentziak bermatuz ezagutza sortzeko gai diren ikasleak hezi behar ditugu. Irakasleek, ikastolen pedagogia-curriculum proiektuekin bat datozen IKT baliabideak erabiliz, metodologia berritzaileak eta kolaborazio proiektuak bultzatzen dituzte. Ikastola bakoitzaren kudeaketa, antolaketa eta komunitatearen partaidetza kalitatez bermatzeko, eta ikastola taldea sendotzeko, berriaz sortutako aplikazioak ditugu.”



IKASMATERIALGINTZA

XXI. mendeko ikastolak bere hautu propioa beharrezkoa du euskal curriculumari eta ikasmaterialei begira. Ikastolen ikasmaterialeen katalogoak ikastola ereduaren ikuspegitik ekoitzia izan den ikasmaterial bilduma jasotzen du.

CREACIÓN DE MATERIAL ESCOLAR: La ikastola del siglo XXI necesita realizar su propia elección en lo que al Curriculum Vasco y al material escolar se refiere. El catálogo de MATERIALES ESCOLARES DE LAS IKASTOLAS recoge una colección de productos que han sido creados desde el punto de vista del modelo de la IKASTOLA. • MATERIEL PEDAGOGIQUE: L'ikastola du XXIème siècle a son propre curriculum basque et son propre matériel pédagogique. Le catalogue des PRODUITS IKASTOLA recueille un nombre conséquent de matériels pédagogiques pensés et créés selon le modèle IKASTOLA.



ERRAMUN MARTIARENA Ikasmaterialgintza arduraduna

“Euskarri modernoak integratzen dituzten material bilduma da (joko didaktikoak, audioak, bideoak, paperezkoak, CD-ROMak, internet e.a.). Ikasleen motibazioa eta ikaskuntza esanguratsua etengabe bilatzen duten ikasmaterial curricularrez osatuak daude. Metodologia globalizatzailea aktibo eta eraikitzailea dute helmuga. Aniztasuna, balio eta jarrerren hezkuntzarekin konprometituak dira. Irakasleentzako orientabide metodologikoak eta prestakuntza espezifikoak ez ezik, gurasoentzako proposamen hezitzaileak jasotzen dituzte oro har. Azken finean, ikastola proiektu orokorra garatzen laguntzeko materialak dira, hezkuntza komunitate osoari zabalduak, ahalik eta aukera gehien eskaini nahian. Ikasmaterialok goi mailako kalitatea aitortzen dieten sariak jaso dituzte behin eta berriz Euskal Herrian, Espainiar Estatuan eta baita European ere.”



PRESTAKUNTZA

Ikastola ereduak eskatzen dituen gaitasun eta trebetasunak eskuratzeko asmotan, prestakuntza eguneratua eskaintzen zaie guraso eta profesionaleri.

FORMACIÓN: De cara a lograr las capacidades y habilidades que pretende el modelo de la Ikastola, se ofrece formación actualizada a familias y profesionales. • FORMATION: Dans le but d'acquérir les capacités et aptitudes prônées par le modèle ikastola, des formations actualisées sont proposées aux familles et professionnels.



MANU AURREKOETXEA Prestakuntza arduraduna

“Hezkuntza munduan, kalitatearen ikusmiran, prestakuntza funtsezko arlo bezala hartzen dugu. Euskal Herriko Ikastolen

Konfederazioan prestakuntza bost irizpideren

gainean eraikitzen dihardugu, hots,

- Irakasleen prestakuntza
- Gurasoen prestakuntza
- Mintegiak
- Jardunaldi Pedagogikoak
- Ikasmaterialaren inguruko prestakuntza.”

ZERBITZUAK



IKASTOLAK HAINBAT ARGAZKITAN

AZKEN ALBISTEAK

Ikastolek duten bide berriak irekitzeko grinak etengabeko dinamika sortarazten du. Hasieran derrigorrezkoa izan zena bizi filosofia bihurtu da. Estiloa sortu du. Horrek eraman ditu ikastolak kalitate erduekin lan egitera. Asko dira EFQM sariak eskuratu dituztenak. Eta asko dira baita ere beste hainbat sari jaso dituzten egitasmoak. Hona hemen azken orduko hainbat adibide.

LAS IKASTOLAS EN FOTOGRAFÍAS. Últimas noticias: La ilusión de las ikastolas por abrir continuamente nuevos caminos empuja una dinámica incesante. Lo que en un principio fue imprescindible se ha convertido en una filosofía de vida. Ha creado estilo. Esto ha llevado a las ikastolas a trabajar con modelos de calidad. Muchas han recibido premios EFQM. Y otras muchas iniciativas han obtenido otros galardones. Ofrecemos algunos ejemplos de última hora. • **LES IKASTOLA RECOMPENSEES. Dernières nouvelles:** La volonté des ikastola d'explorer de nouveaux horizons engendre une dynamique continue. Ce qui était au départ une nécessité est devenu mode de vie. Un style est né qui a amené les ikastola à travailler un modèle de qualité. Nombreuses sont les ikastola qui ont obtenu les prix EFQM. Nombreux également les projets récompensés. Voici quelques exemples récents.



IKASTOLEN NAZIOARTEKO EKARPENARI SARIA EUROPIAN
BRETOIERAZKO ELEANITZ PROGRAMA

Hezkuntza eta Formazioaren Europako Agentziak Hizkuntzen Labela izeneko saria eman dio Bretoierazko Eleanitz Programari, Dihun Breizh sareak (Bretaniako kristau eskolena) Ikastolen aholkularitzarekin lantzen duen programari, alegia. Saria hilabete honetan emango zaie Dihun sarearen ordezkariari Expolangues 2008 erakusketa handiaren barruan. Sari hori Ikastolen Elkarteak lortu zuen 1998an. Bretoierazko Eleanitz Programak hiru hizkuntza lantzen ditu, hala nola, bretoiera, frantsesa eta ingelesa, eta hirugarren hizkuntza honen lanketan hartzen dute parte ikastolek. Xabier Garagorrik, Ikastolen Konfederazioko Pedagogi arduradunak, gogoratu zuenez, "gure profesionalen ardurapean egiten dute ingeleseko irakasleen prestakuntza, eta gure materialarekin egiten dute lan eskoletan. Alde horretatik, neurri batean behintzat, ikastolek nazioartean egindako ekarpena aitortzera dator sari hau".



BIZIKIDETZA PROIEKTUA
SAN FERMIN IKASTOLA

MECek ematen duen "Premio a las Mejores Prácticas de Convivencia 2007" izeneko saria irabazi berri du Iruñeko San Fermin ikastolak. "Bigarren Hezkuntza osoan daramagun proiektua da. Orain dela lau urte hasi ginen proiektuan parte hartzen. Klaustro osoaren formazio plan bat egin genuen. Rosario Ortegaren taldearekin batzuk eta Luis Torregoren taldearekin besteak; iaz beste etapa guztiak sartu ziren proiektuan. Ikasle Laguntzaile taldeak sortu genituen, eta ikasleekin hainbat gauza martxan jartzen hasi ginen. Gelako gatazkak jorratzen dira beti, berdinen arteko gatazkak, alegia. Bitartekaritzaren kultura ari gara hedatzen. Hau izan da saritu diguten proiektua".

PILAR VICENTE. SAN FERMIN

PENTAZITEA
INIGO ARITZA, LIZARRA, SAN BENITO ETA
BESTE HAINBAT

"Bizikidetza lantzen duen programa bat da. Iaz hasi ginen lanean klaustro osoa, guraso talde bat ere tartean zela. Bost arlo lantzen dituelako (nortasuna, emozioak, gorputza, adimena eta harreman sozialak) deitzen zaio pentazitara programari. Tutoretza saioetan lantzen dira balio horiek tekniken, ariketen eta eztabaiden bidez. Norbere nortasuna eraiki, berdintasunean oinarritutako harremanak egin, eta adimena garatzeko balio du. Gure artean arrakasta gehien izan duten teknikak sintoniak eta maitasungramak izan dira. Egunean hiru aldiz sintonia saioak egiten ditugu, gelan sartzerakoan batik batik. Musikaren eta ariketen bidez egiten diren erlaxazio saioak dira. Horrekin batean maitasungramak egiten hasi gara. Gelako ikasle guztien izenak jartzen dira mural batean gutunazal banarekin, eta ikaskideek oharrak idazten dizkiete elkarri eskertzeko, zoriontzeko edo barkamena eskatzeko. Ohar horiek izenpetu egin behar dira. Irakasleok ere egiten ditugu maitasungramak. Gaitasun emozionalak garatzeko balio dute". (Esther Garaialde)



EUSKARA ETA EUSKAL LITERATURA
"EUSKALJAKINTZA" BLOGEAN ORDIZIAN

Jakintzan Batxilergoko 2. mailan Euskara eta Literatura lantzeko erabiltzen dute "Euskaljakintza" bloga. Orain urte batzuk Jokin Lacalle IKT dinamizatzaileak etapa ezberdinetako irakasleekin lan-taldea osatu zuen teknologia berrien aplikazio didaktikoak gela barruan sustatzen hastea, eta orain bi urte jarri zuten martxan "Euskaljakintza" bloga. Maite Goñi da proiektua gidatzen duena. Hasieratik erabaki zuten testu libururik ez zutela ukituko. Batxilergoko 2. mailan eman beharreko materiala sortzen hasi ziren. Alde batetik ikasteko modu aktiboagoak eta talde lana bultzatzen dira, eta aldi berean egiten dituzten lanak berriro sarean jartzen dituzte, beren lanei gizarte-dimentsio bat emanez. "Beren lanak sarean denon eskura jartzea motibatzen egiten ditu, gelatik kanpo ere irakurleak dituztela ohartzen baitira", esan zigun Maitek. Jakintza ikastolak bi sari garrantzitsu jasoak ditu IKTen aplikazioengatik.



"IKASGELA BIRTUALA"
AXULAR LIZEOAN

Axular Lizeoan ariketa osagarriak eta etxeko lanak egiteko erabiltzen dute Ikasgela Birtuala. Horretarako erabiltzen duten softwarea Moodle deritzana da, pedagogian nahikoa ezaguna, 70 hizkuntza baino gehiagotara itzulia dagoelako. "Gure irakaskuntza, noski, presentziala da, eta ariketa osagarriak edo etxeko lanak egiteko erabiltzen dugu ikasgela hori. Irakasleak badaki ikasleek zer egin duten, zenbat denbora pasatu duten, eta abar. Horrez gainera, ikasleak elkarrekin harremanetan jar daitezke, foroak eta txatak ere badituelako. Gelan ere, ordenagailuarekin eta kainoi batekin ireki daiteke ikasgela birtual hori. Edukiak argitaratzeko ere balio du, eta batez ere ariketak ditu..." esan zigun Juan Ezeizak, lizeoko IKT arduradunak. Software askea, hau da, kode irekiko eta doakoa den softwarea, ikasgela birtualean edukiak sartzeko, ariketak egiteko eta baliabideak kudeatzeko nola erabili daitezkeen agertzen duen proiektua aurkeztu zuten berriki, eta Euskal itzarietako bat jaso dute. DBH osoan eta Batxilergoan erabiltzen dute ikasgela birtuala.



OTEITZA LIZEO POLITEKNIKOA. ZILARRA
ZARAUTZ

“Askotan jarduten dugu hezkuntzako gure lanaren balioaren inguruan solasean: gizarteak ez duela behar den bezala gure lana aitortzen, gurasoak ez direla behar adina inplikatzeko, ez dugula behar adinako diru laguntzarik jasotzen erakundeetatik, eta abar. Atzoko ekitaldiak, zilarrezko saria jasotzeko ekitaldiak alegia, gure lanak zerbaiteko balio izan duela sentiarazi zigun. 3000 pertsona inguru txaloka eta oihuka, Eusko Jaurlaritzako sailburuen gehiengoa, Lehendakaria buru, Euskaliteko presidentea, han ziren saria irabazitakoak zorionduz. Benetan hunkigarria, eta gure barrua bero-bero “zerbait bagaituk, gure lanak merezi du” pentsatuz. Sarituak izan ziren beste guztiak gure zorionik beroenak, eta oraindik bidean zaudeteno eta hastekotan zabilzatenoi, ahaleginak merezi duela eta gu hemen izango gaituzuela zuei laguntzeko prest. Esperientzia hau benetan baliagarria da gure lana, orain artean ikastola guztion bezala, egunegun etengabe hobetzen joateko eta hezkuntzaren historian gure tokitxo aberasteko”. PATXI OSTOLAZA



TXINTXIRRI IKASTOLA. URREA
ELORRIO

“40 urte beteko ditugun ikasturte honetan, berebiziko garrantzia duen saria jaso genuen iragan azaroaren 28an. Sari edo opari honek, Kudeaketaren Kalitatearen Urrezko Q-a, alegia, orain dela hamarkada bat egindako kalitatearen aldeko apustuan asmatu egin genuela adierazten digu. Garai hartan argi genuen gure ikastolari balio erantsia emango zion zerbait behar genuela, eta lan horri ekin genion. 2003an Zilarrezko Q-a lortu ondoren, urrats bat haratago joatea erabaki genuen, eta aurten fruitu berriak jaso ditugu. Gauzak ondo kudeatzen genituela garbi genuen Ikastolako eragile guztiok, baina kanpoko erakunde batek gure funtzionamendua eta antolaketa ikustea eta ebaluatzea nahi genuen. Emaitza ezin hobea izan da, eta gure Ikastola Kudeaketaren Kalitatearen erreferente bihurtu da. Hau guztia lortzeko guraso, ikasle eta langilearen inplikazioa, lana eta grina ezinbestekoa izan da”. JOSU BARRENA




LAUDIO IKASTOLA. ZILARRA
LAUDIO

“Sari hau bide luze batean emandako beste urrats bat izan da. Bidea 1998an hasi zen, ikastolako zuzendaritzak, ikastetxearen kudeaketan hobetu asmoz, Europatik zetorren EFQM ereduaz egindako erabakia zuenean. Honen helburua ikastola hobekuntza bidean jartzea zen. Saria bera bigarren maila batean jartzen genuen. Poliki-poliki jarri ginen lanean: ikastolako hainbat pertsonak ereduaren inguruko prestakuntza jaso zuten; ikastolako prozesuak sistematizatzen hasi ginen; egiten duguna ondo ala gaizki egiten dugun jakiteko, datu bila hasi ginen. Hortik guraso eta ikasleei luzatzen dizkizuegun inkestak sortu ziren, baita gure emaitzak beste ikastetxe eta erakundeekin erkatzea ere, non gauden irudi zehatzagoa izateko. Pasa den ikasturtearen hasieran, ordura arte egindako lana kontuan hartuta, Euskalite-en kanpo ebaluaziora aurkezteko unea iritsi zela erabaki genuen. Ekainean memoria aurkeztu, eta urriaren amaieran ebaluatzaileen bisita izan dugu”. LUIS JAVIER GARCIA

Euskalite-ek (Kalitaterako Euskal Iraskundeak)
2007an egindako ebaluazioaren arabera,
kudeaketaren kalitatean zilarrezko eta urrezko Qak
lortu dituzten ikastolak:
ORAIN ARTEKO Q SARIAK

- JAKINTZA IKASTOLA (2002, Urrezkoa 2005)
- URRETXU ZUMARRAGA IKASTOLA (2006)
- ASTI LEKU IKASTOLA (2006)
- TXANTXIKU IKASTOLA (2004)
- AXULAR LIZEOA (2004)
- LASKORAIN IKASTOLA (2004)
- SEBER ALTUBE IKASTOLA (2003)
- ELORRIOKO TXINTXIRRI IKASTOLA (2003, Urrezkoa 2007)
- ANOETAKO ETA IRURAKO IKASTOLAK (2003)
- SAN BENITO IKASTOLA (2003)
- LAURO IKASTOLA (2002)
- ORERETA IKASTOLA (2003)
- IBARRAKO UZTURPE IKASTOLA (2004)
- LAUDIO IKASTOLA (2007)
- OTEITZA (2007)

Naturgas energia etorkizuneko energia da, garbi jokatzen duelako gurekin eta gure ingurumenarekin.



Erosten jakin

GARBERA - URBIL ARRASATE

Testuliburu eta ikasmaterialetan adituak

ARRASATE • BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • IRUN • IRUÑEA • TOLOSA

www.elkar.com

JAIOTZEN DIRA BERRIAK

LURRALDEZ LURRALDE

Hezkuntza eredua, ikasmaterialak, euskal curriculum... horiek dira gure ikur nagusiak, baina horiek gauzatu ahal izateko derrigorrezkoak dira azpiegiturak. Ikastolak etengabe berritzen ari gara edo ikastola berriak eraikitzen. Lurralde bakoitzetik adibide bana aukeratu dugu.

NACEN NUEVOS CENTROS. En cada territorio: Modelo educativo, materiales escolares, Curriculum Vasco... Esas son nuestras principales señas de identidad, pero para poder llevarlas adelante son imprescindibles las infraestructuras. Reformamos continuamente nuestros centros y creamos nuevas ikastolas. Os mostramos un ejemplo de cada territorio. • **NOUVELLES IKASTOLA. Territoire par territoire:** Modèle éducatif, matériel pédagogique, curriculum basque... sont les maîtres mots de notre système. Mais pour développer ces projets les infrastructures sont indispensables. Des anciennes ikastola sont rénovées, d'autres voient le jour. Voici quelques exemples.



ERENTZUN IKASTOLA VIANAN
Eraikuntza berriaren zutabeak prest

Vianako Erentzun Ikastola, 1978. urtean 17 ikaslerekin sortutako ikastola txiki bat dugu. Urteak joan ahala, Ikastola proiektua sendotuz joan da eta zonaldeko erreferente bihurtu da gure hizkuntza, euskara, zabaltzeko lanetan. Gaur egun 133 ikasle ditu bere geletan, Haur Eskola, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako etapetan banaturik. Iaz, bigarren egin zen Nafarroa Oinez Vianan. Aurten 12 urte bete dira gaur egungo eraikuntza inauguratu zenetik, baina denbora gutxi honetan txiki gelditu zaie Ikastola. Eraikuntza berri honetan, 0-3 zikloa eta Haur Hezkuntza finkatuko dira, beharrezko gela eta jolasleku estaliarekin. Gaur egungo eraikinean berriz, aldaketak egingo dituzte: gelak zabaldu, jangela, liburutegia, laborategia... eta abarrek orain arte izan ez duten espazio propioa izango dute. Erentzun Ikastola, aro berri batean sartuko da; hasierako gogo eta ilusioa gain, orain azpiegitura berriak izango dituzte euskarazko kalitatezko hezkuntza bermatzeko eta eskaintza ahalik eta familia gehieni zabaltzeko.



INMAKULADA IKASTETXEA TOLOSAN
Lanbide Heziketako ikastola ikusgarria

Inmakulada Ikastola Tolosako Kondeko Aldapan dagoen Lanbide Heziketako ikastetxe ikusgarria da, Gipuzkoako Ikastolen Elkartearen sartzeko azken tramitea egiten ari dena. 270 ikasle ditu. Osasun arloko zikloetan Gipuzkoako erreferente nagusia da. Osasun arlokoak eta gizarte zerbitzuen eremukoak dira zikloak. Osasun arloko/erdi mailakoak Farmazia Laguntzaile eta Erizain Laguntzaileak, eta, Diagnosi Irudia eta Osasun Dokumentazioa goi mailakoak ematen dituzte. Datorren urtean Erradioterapia irakasten hasiko dira. Gizarte esparruan Gizarte Integrazioa eta Haur Hezkuntzako Laguntzailea goi mailako zikloak ematen dituzte. Ikastetxe konfesionala izan zen urte askoan, kristau eskolen sarean jarraitu zuen gerora eta orain lau bat urte gaurko zuzendaritzak hartu zuen, langile kooperatiba osatu eta goitik behera euskalduntzen hasi ziren. Ana Monje, Josu Martinez eta Jose Manuel Odriozola dira zuzendaritza osatzen dutenak. Lehena ekonomilaria da, bigarrena medikua eta hirugarrena fisikaria. 2010erako ziklo guztiak euskaraz emateko asmoarekin ari dira lanean.



HARROBIA FUNDAZIOA BILBO
Lanbide Heziketa euskaraz

Bilbo Zaharrean, gaur La Cantera deitzen zaion plazan, eraikiko du Bilbo inguruko zortzi ikastolek osatu duten Harrobia Fundazioak Ikastolen Lanbide Etxea izena izango duen ikastetxe berria. Horretarako lau milioi eta erdiko inbertsioa beharko dute. Bilboko Abusu eta Urretxindorra, Leioako Betiko, Santurtziko Bihotz Gaztea, Galdakaoko Eguzki Begi, Trapagarango Itxaropena, eta Balmasedako Zubi Zahar ikastolak izan dira Harrobia fundazioa sortu dutenak. Berritatzeko ari diren auzoa da, eta Udalak lursaila doan jarri du ikastola egin ahal izateko. Bizkaiko Foru Aldundiak ere lagundutako egitasmoa izango da, hainbat enpresarekin batera. Koldo Niembro, Santurtziko Bihotz Gaztea ikastolako zuzendari ohia, da Harrobia proiektuaren koordinatzailea. Bizkaiko Ikastolak Lanbide Heziketa indartzeko egiten ari diren apustu estrategikoaren barruan kokatu behar da proiektu handi hau. Merkataritza eta Marketina, Elikagaien Industriak, Produktzio Zerbitzu eta Mantenua, Informatika, Garraioen Kudeaketa eta beste zenbait ziklo emango dira bertan.



BASTIDA IKASTOLA LABASTIDAN
Markak hausten

1983an sortu zen Bastidako ikastola 12 ikaslerekin, eta gaur 199 ikasle ditu. DBH1 eta 2ko gelak Lapueblako Assa ikastolarekin kontzertatuta ditu, eta ikastola horretara joaten dira ondoren DBH3 eta 4 zein Batxilergoa egitera. Hainbesteko arrakasta du iaz eraikin berria inauguratu duen Arabako Errioxako ikastola honek, non aurten gela bat bitan zatitu behar izan duten. Aipatu ditugun 199 ikasle horietatik %45 herrikoak dira, eta inguruetatik hiru autobusetan etortzen dira besteak: autobus bat Mirandatik, beste bat Harotik eta hirugarren bat inguruko herriketatik. 2004an egin zuten Araba Euskarazi esker gai izan dira eraikin berria egiteko. 2006ko azaroaren 18an inauguratu zuten. Inbertsio handiak egin dituzte, eta finantziario planari aurre egiteko lau urtetik behin Araba Euskaraz antolatutako konpromisoa hartu dute Arabako ikastolen aurrean. Ondorioz, 2008an eta 2012ean ere Bastidan egingo da Arabako Ikastolen Jai Nagusia.



OZTIBARREKO IKASTOLA LARTZABALEN
Txikientzat berri-berria ere

“Lur eremu bera da, baina legeak arautzen duen bezala, bi zatitan banatu behar izan genuen eta bi eraikin ezberdin egin, adin ezberdintasunagatik. Bi ikastetxeetako gurasoen artean elkarte bat osatu genuen, Phagatxa elkarte deitu duguna. Elkartearen helburua sostengu kanpainak egin eta egitasmo komun batzuk aurrera eramatea da. Gure kasuan ere lurra Egoitza elkarteak erosi zuen, eta eraikina kolegioa bezalaxe egin da, Herri Urratseko eta Eusko Jaurlaritzako diruarekin. Kolegioa bi solairuko da, gurea batekoa. Eta jantoki bera erabiltzen dugu haiek eta guk, orduetegi ezberdinekin”, esan zigun Gabi Phagaburuk, ikastolako lehendakariak. Oztibarreko ikastola orain dela 17 urte sortu zen. Orain 2-12 urteko 38 haur ditu. Oso kopuru txikia dirudi, baina Oztibar bailarako haurren %30 inguru suposatzen du.



MANEX ERDOZAINZI KOLEGIOA LARTZABALEN
Dagoeneko ikasleak bertan

Ipar Euskal Herriko ikastoletan ikasturte berriak eman duen berritasun nagusia Lartzabalen zabaldu den Manex Erdozaintzi kolegioa izan da. Iragan azaroan hasi ziren lanak eta abuztuaren bukaera zirenean. Ehun eta hogeita bost ikasle sartu dira bertan. Eraikuntza berriak bi solairu ditu. Hamar mila metro koadro baino gehiago erosi zituzten, eta zati txiki bat bakarrik hartu du eraikuntzak. Ondorioz, leku asko geratzen da etorkizunean behar diren instalazio eta jolastokiak egiteko. Orain 125 ikasle ditu kolegio berriak. Erabat betetik balitz, Kolegioan 200 ikasle sartuko liriteke. Hiru autobusetan etortzen dira ikasle horiek Lartzabalera. Bada autobus bat Atharratzetik abiatu eta Zuberoako ikasleak biltzen dituen. Bada bigarren bat Donapaleuko eskualdetik datorrena, eta hirugarren bat Baigorritik datorrena. Lehen zuberotarrak Xalbador kolegioko barnetegira joaten ziren lo egitera. Orain autobusari esker, egunero joan-etorria egiten dute etxetik. Kolegio berria egiteko lurra Ikastolen Egoitzak elkarteak erosi zuen, eta eraikuntza egin ahal izateko Eusko Jaurlaritzak ere diru-laguntza garrantzitsua eman du.

Begiratu zientziari beste era batera

gizarte ekintza

hezkuntza



Kutxak, bere Gizarte-Ekintzaren bidez, zientzia jolasgarriago bihurtzeko formula zehatza aurkitu du, **Zientziaren KutxaGunea**.

Ingurunean duguna hainbat sistema elkarrengileren bitartez uler dezagun asmatutako gune bat. Hemen ukitu, behatu, ulertu, gozatu egin baitezakezu. Zatoz eta begira egia munduari beste begirada batez.

- 170 esperimentu interaktibo.
- 10 erakusketa finko (gaikakoak).
- Planetarium digitala eta Planetarium Txikia (umeentzako).
- Elektrizitate-tallerra.
- Denboraldi baterako erakusketak.
- Ikastetxeetarako hezkuntza-programak eta material didaktikoa.
- Animazio-ekintzak eta adin guztietako jendearentzako zuzeneko ikuskizunak.
- Aparkalekua, dohainik. Erroz iristen da Museora.



Zatoz Zientziaren kutxaGunera

Mikeletegi Pasealekua 45. DONOSTIA

Museoari buruzko informazioa osatzeko, bisita ezazu kutxasocial.net edo deitu kutxaren Gizarte Ekintzaren informazio-bulegora: **943 00 12 17**.

kutxa
zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

IKASTOLEN JAIK 2008

EGUNERO LANEAN, TARTEKA JAI

Lana maite dugu eta pozik egiten dugu, baina maite dugu tarteka jai egitea ere. Urtean zehar ikastolaren jaiak antolatzen dira herrialdeka: Iparraldean HERRI URRATS, Bizkaian IBILALDIA, Araban ARABA EUSKARAZ, Gipuzkoan KILOMETROAK eta Nafarroan NAFARROA OINEZ. Auzolanean antolatzen dira, enpresa handien babesarekin jasotzen dute eta biltzen den dirua proiektu jakin bati laguntzeko izaten da: lur sail bat erosi, eraikina jaso edo lehengoa zaharberritzeko.

FIESTAS DE LAS IKASTOLAS. Cada día trabajo y de vez en cuando fiesta: Nos gusta el trabajo y lo realizamos con dedicación pero, de vez en cuando, también nos va la fiesta. A lo largo del año tenemos HERRI URRATS en Iparralde, IBILALDIA en Bizkaia, ARABA EUSKARAZ en Araba, KILOMETROAK en Gipuzkoa y NAFARROA OINEZ en Navarra. Estas fiestas se organizan gracias al trabajo en común de muchas personas, reciben el apoyo de grandes empresas y el dinero recaudado va proyectos concretos: la compra de un terreno, la construcción de un nuevo edificio o a las obras de rehabilitación de una ikastola. • **FETES DES IKASTOLA.** Qui au travail, à la fête aussi: Nous aimons notre travail, faire la fête également. Toute l'année les ikastola sont fêtées sur l'ensemble du Pays Basque: HERRI URRATS en Iparralde, IBILALDIA en Biscaye, ARABA EUSKARAZ en Araba, KILOMETROAK en Gipuzkoa et NAFARROA OINEZ en Navarre. Parents, enseignants... prennent part à l'organisation de ces fêtes qui reçoivent le soutien de grandes entreprises. L'argent récolté sert à financer des projets: achat d'un terrain, construction ou rénovation de bâtiments.



HERRI URRATS: Maiatzaren 11ean, Senperen

eraikitzen
kilometroak-08 **Iturra**

KILOMETROAK: Urriaren 5ean, Iruran



ARABA EUSKARAZ: Ekainaren 15ean, Bastidan

NAFARROA OINEZ: Urriaren 19an, Iruñean

i♥ilaldia
ZORNOTZA 2008

IBILALDIA: Maiatzaren 25ean, Zornotza-Amorebietan





Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea

Deusto

Campus San Sebastián
Donostiako Campusa

Jornada de Puertas Abiertas

Ateak Zabalik Jardunaldia

Urtarrilak 26 Enero (10:00-14:00)

Ven a conocernos
Etor zaitez gu ezagutzera

ESTE-ESIDE. Doble titulación:
Licenciatura en Administración y Dirección de Empresas e Ingeniería
Técnica en Informática de Gestión (4 años)

ESTE-ESIDE. Titulazio Bikoitza:
Enpresen Administrazioiko eta Zuzendaritzako Lizentziatura eta
Kudeaketako Informatikako Ingeniaritza Teknikoa (4 urte)

ESTE. Licenciatura en Administración y
Dirección de Empresas (4 años) + Máster de Especialidad

ESTE. Enpresen Administrazioiko eta Zuzendaritzako Lizentziatura
(4 urte) + Espezialitateko Masterra

Licenciatura en Humanidades: Comunicación. HUCO (4 años)

Giza Zientzietako Lizentziatura: Komunikazioa. HUCO (4 urte)

Licenciatura en Humanidades: Empresa. HUEM (4 años)

Giza Zientzietako Lizentziatura: Enpresa. HUEM (4 urte)

Diplomatura en Turismo (4 años)

Turismoko Diplomatura (4 urte)

Diplomatura en Trabajo Social (4 años)

Gizarte Laneko Diplomatura (4 urte)